**Espedientea: OT-001/15-PTP**
**Donostialdea-Bidasoa Behera**
Donostialdea-Bidasoa Beherako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.

**Expediente: 3HI-001/15-PTP**
**Donostialdea-Bajo Bidasoa**

Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Donostialdea-Bajo Bidasoa

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

**HONAKO HAU ZIURTATZEN DUT:** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean, otsailaren 18an, 2/2015 Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuten, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutako gehiengo osoak:

**CERTIFICO**: que en la Sesión 2/2015 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada el día 18 de febrero, se adoptó, entre otros, por mayoría absoluta de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguiente acuerdo:

**"I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:**

I. Donostiako Lurralde Plan Partzialaren dokumentu berrituari hasierako onespena eman aurretik, aldeko txostena ematea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 13.5. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

II. Txosten hau Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari helaraztea, 4/1990 Legean ezarritakoarekin bat, dokumentu horri hasierako onespena eman diezaion, eta aipatutako legearen 13. artikuluaren 6. eta 7. ataletan aurreikusten diren jendaurreko informaziorako eta entzunaldirako izapideak bidera ditzan.

"**I.- En materia de Ordenación del Territorio:**

I. Informar favorablemente con carácter previo a su aprobación inicial el Documento Reformado del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de San Sebastián de acuerdo con lo señalado en el artículo 13.5 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

II. Elevar este informe a la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, para que, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/1990, proceda a aprobarlo inicialmente y someterlo a los trámites de información pública y audiencia previstos en los apartados 6 y 7 del artículo 13 de la referida Ley.

**II.- Garraio Plangintzaren arloan:**

Garraio Plangintzaren arloan, Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak 2015eko otsailaren 9an emandako txostena hartu behar da kontuan.

**II.- En materia de Planificación del Transporte:**

En materia de Planificación del Transporte es preciso tener en cuenta el informe emitido por la Dirección de Planificación del Transporte de 9 de febrero de 2015.

**III.- Uraren arloan:**

URA-Uraren Euskal Agentziak, 2015eko otsailaren 12an, aldeko txostena egin zuen, honako erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzapean:

1) LPPn berariaz jaso beharko da Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen zehaztapenak eta uholdegarritasunari buruzko indarreko araudia Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuetan edo ibai-korridoreetan ez ezik, lurralde osoan ere ezarri beharrekoak direla.

**III.- En materia de Aguas:**

La Agencia Vasca del Agua-URA, en su informe emitido el 12 de febrero de 2015, informa favorablemente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a las siguientes determinaciones de carácter vinculante:

1) Debe quedar explícito en el PTP que las determinaciones de los Planes Hidrológicos de Gestión de Riesgo de Inundación, así como que la normativa vigente, en materia de inundabilidad, son de aplicación a la totalidad del territorio, y no sólo en los ARPSIs o en los

Corredores Fluviales.

2) LPPn eremu funtzionaleko kartografia sartu beharko da, indarreko araudia ezarzeko erreferentzia gisa.

2) Se debe incluir en el PTP la cartografía del área funcional, como referencia para la aplicación de la normativa vigente.

3) Saneamenduari dagokionez, LPPn, Loiolako Hondakin-uren araztegira (HUA) doan kolektore-sarea eta hori handitzeko aukera jaso beharko dira.

3) Respecto al saneamiento, se considera necesario incluir en el PTP la necesidad de contemplar la red de colectores con destino a la EDAR de Loiola así como posibilitar la ampliación de la misma.

**IV.- Ingurune naturalaren arloan**

**IV.- En materia de Medio Natural:**

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak, 2015eko otsailaren 12an, aldeko txostena egin zuen, honako erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzapean:

La Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental, en su informe emitido el 12 de febrero de 2015, informa favorablemente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a las siguientes determinaciones de carácter vinculante:

- Bai hiri-inguruko parke naturalen kasuan, bai nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoen kasuan, Natura 2000 sarearen muga barruan gauzatzen diren ibai-korridoreak eta gainontzeko jarduerak egitekotan, araudian berariaz jaso beharko da horren helburu nagusia Batasunaren intereseko espezie eta habitatak kontserbatzea dela (1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentaraua 3. eta 6. artikuluak); eta gainontzeko helburuak horren mende jarriko dira.

- Tanto para el caso de los parques rurales periurbanos como para las áreas agropecuarias estratégicas, para los corredores fluviales y el resto de actuaciones que se produzcan dentro de los límites de la red Natura 2000, se debe hacer una referencia expresa en la normativa a que el objeto principal será la conservación de las especies y hábitats de interés comunitario (Directiva 92/43/CEE de 21 de mayo de 1992, art. 3 y 6), y los demás objetivos se subordinarán a él.

Lurralde-antolamenduak ezin ditu aldatu natura-baliabideen antolamendu-planen xedapenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 1eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 6.2 artikuluan ezarritakoarekin bat. Eta "LPP honen lurralde-antolamendu orokorrarekin bateragarriak direnean" ez ezik, edonoiz ere bete behar izaten dira.

- Las disposiciones de los Planes de Ordenación de Recursos Naturales no pueden ser modificadas por la ordenación territorial tal como se especifica en el art. 6.2 del Texto Refundido de Conservación de la Naturaleza del País Vasco (Decreto Legislativo 1/2014 de 1 de abril), y deben ser seguidas en todo caso, y no sólo "cuando sean compatibles con la ordenación territorial general del presente PTP"

**V.- Nekazaritza eta Abeltzaintzaren arloan:**

**V.- En materia de Agricultura y Ganadería:**

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak 2015eko otsailaren 17an emandako txostenean, honako erabaki lotesle hauek jaso ditu:

La Dirección de Agricultura y Ganadería, en su informe emitido el 17 de febrero de 2015, efectúa las siguientes consideraciones de carácter vinculante:

- Balio estrategiko handiko eremuen zonifikazioa eta erabileren araubidea -

-Zonificación y régimen de usos de las Áreas de Alto Valor Estratégico-

Balio estrategiko handiko eremuen zonifikazio eta erabileren araubideari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duen irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren Lehenengo Xedapen Iragankorrak ezarritakoa hartuko da kontuan, eta honako hau xedatzen du: "*Plan hau indarrean jartzean hasierako onespena eman ez zaien LPPak eta LPSak lantzeko prozeduretan, hemen jasotako zehaztapenetara egokitu beharko dira planak,*

Con respecto a la zonificación y régimen de las Áreas de Alto Valor Estratégico, deberá considerarse lo establecido por la Disposición Transitoria Primera del Decreto 177/2014, de 16 de septiembre, por la que se aprueba definitivamente el Plan Territorial Sectorial Agroforestal de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que establece que "En los procedimientos de formulación de los PTPs y PTSs que no hayan sido aprobados inicialmente en el momento de la entrada en vigor de este Plan, deberán adaptarse a las

*LPS honetako Balio Estrategiko Handiko Eremuei, Onura Publikoko Mendiei eta Mendi Babesleei dagokienez.*”. Ingurune fisikoaren lurralde-antolamenduaren proposamenean, “Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala” kategoria zein horren mugaketa sartu, eta Erabilerak eta Jarduerak Arautzeko Matrizea ere ezarriko da, EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPPn xedatutakoarekin bat.

**VI.** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari ondokoek egindako txostenak bidaltzea: Garraio Plangintzaren Zuzendaritza (I. eranskina), URA-Uraren Euskal Agentzia (II. eranskina), Etxebizitza Sailburuordetza (III. eranskina), Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza (IV. eranskina), Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza (V. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2015eko otsailaren 18an.

determinaciones contenidas en éste en lo relativo a las Áreas de Alto Valor Estratégico y los Montes de Utilidad Pública Protectores de este PTS.”, incorporando en la propuesta de ordenación territorial del medio físico la categoría de ordenación Agroganadera y Campiña de Alto Valor Estratégico y su delimitación, y adoptando la Matriz de Regulación de Usos y Actividades para dicha categoría, de conformidad con lo establecido en el PTS Agroforestal de la CAPV.

**VI.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por la Dirección Planificación del Transporte (Anexo I); por URA. Agencia Vasca del Agua (Anexo II); por la Viceconsejería de Vivienda (Anexo III); por la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental (Anexo IV); por la Dirección de Agricultura y Ganadería (Anexo V), que se acompañan a la presente certificación.”

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 18 de febrero de 2015.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEA - PLENOA -

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga